

## **2.- Lantokien ondorengo altak**

- Lantokia bakarra bada, lantoki hori zein autonomia-erkidegotan dagoen, hartan.
- Lantoki bat baino gehiagoko altak badira, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, lantoki berriak zein autonomia-erkidegotan dauden, haietako edozeinetan.
- Enplegu-agentziak Ceutako eta/edo Melillako hiri autonomoetan soilik jarduten badu, hiri autonomo horietako lantokien alta berrien erantzukizunpeko adierazpena SEPEn aurkeztuko da.
- Autonomia-erkidego batean edo gehiagotan eta Ceuta eta/edo Melilla hiri autonomoetakoren batean kokatutako lantoki bat baino gehiago badira, erantzukizunpeko adierazpena aurkez daiteke SEPEn edo enplegu-agentziaren lantoki berriak dauden autonomia-erkidegoetako edozein enplegu-zerbitzu publikotan.